

Mertxe Serna (Urretxuko ikastola);
Luzia Medrano (La Pueblako ikastola); Idoia
Fernandez (Euskal Herriko Unibertsitatea)

IKASTOLETAN KULTURA PARTEHARTZAILEA SORTU NAHIEAN: HEZKUNTZA KOMUNITATE DIALOGIKOAK

Atarikoak

Parte-hartzea modan dagoen hitza da, eta modan dagoen edozein hitz eta kontzeptu bezala, une batez gelditu eta hitza aipatzean zer esan nahi dugun hausnartu beharra dagoela uste dugun horietakoak gara gu. Izan ere, paradoxikoa da ezker eta eskuin aritzea hitz magikoa aipatzen, baina aipatzetik haratago argi gutxi egotea, aipatze soilarekin prozesuek izaera hori hartuko balute bezala. Jendartean eskubideen murriztapen ikaragarria gertatzen ari denean, bertikaltasuna eta botere zenbaiten kontzentrazioa historikoki handiena denean, hara non heziketan parte-hartzeaz milaka berba xahutzen den. Galdera honako hau da: parte-hartzea aipatu aipatzen da, baina benetan parte hartzen al da? ala eduki gabeko beste lelo bat ote da?

Gu esparru honetan, hau da, praktikaren eremuan burutzen ari garen esperientzia gatoz azaltzera, eta horretarako proiektua nondik sortu zen eta nola eratu zen azalduko dugu lehenik eta behin. Ondoren Hezkuntza Komunitate Dialogikoak nola ulertzen ditugun azaltzen jardungo dugu, segituan maila praktikoan egin ditugun urratsez solasteko. Hiru ideia hauek, gure aburuz, aski dira oinarri-oinarrian parte-hartzeaz, edo hobeto esanda, partaidetasunaz ditugun teoria eta praktikaren zutabeak mahai gainean jartzeko.

Esperientziaren hastapenak

Esperientziaren hasiera beste asko bezalakoa izan zen. Ikastolen elkartetik unibertsitatera aholkularitza teknikorako eskaera heldu zitzaigun, prestakuntza beharren diagnostiko bat egiteko. Unibertsitatetik egin zitzaian hasierako proposamenean eredu teoriko gisa kritikoa hartzen zen iparrorratz, eta zentzu horretan, ikerketa kualitatiboa eta lankidetzazkoa izatea aholkatu genuen. Handik aurrera ikastoletatik eta unibertsitatetik lan talde mistoa osatu zen, eta bost ikastola engaiatu ziren proiektuan, parte-hartzea ardatz gisa hartzen zuen prozesu bat abiaraziz. Beharrak diagnostikatzeko eztabaida taldeak antolatu ziren ikastoletan, kolektibo guztietakoak (gurasoak, irakasleak, ikasleak, langileak eta zuzendaritza taldekoak). Bataz beste zortzi orduko eztabaida burutu zuen talde bakoitzak ikastolako bertako bideratzaileen laguntzarekin, eta berrehun pertsona baino gehiago bertaratu zen prozesuan.

Honelako prozesu batek, zer esanik ez, parte hartzen zuten ikastolako komunitateetan mugimendu nabaria sortarazi zuen, eta diagnostiko txostena idatzi ondoren, bide horretatik jarraitu beharra sentitu zuten, interesa piztu zitzaielako batez ere ikerketan planteatutako filosofia, printzipio eta lan egiteko moduekin, metodoarekin alegia. Une horretan erdietsi zen proiektuaren xedea eta identitate ikurra izango zena: Hezkuntza Komunitate Dialogikoen eraikuntza.

Esan dezagun esperientzia hau ez dela beste toki batetik ekarri, kopiatu edo egokitutako zerbait, baizik eta testuinguru zehatz horretan erdietsitako proiektua. Horrek, noski, ez du esan nahi iturri teorikorik ez daukagunik. Izan ere, Paulo Freireren pentsamendu osoa, pedagogia kritikoaren baitan sartzen diren lanak (Giroux, MacLaren, Apple, Flecha, Munduko Hezkuntza Foroak...) edota ikerketa/ekintza kritikoaren sustatzaileak diren Kemmis eta Carr ezinbestekoak izan zaizkigu gure praktikak argitzeko eta aitzinatzeko.

Zer gertatu zen, orduan, ikastola horietan proiektua sortzeko eta orain artean sei urtez hor lanean jarduteko? Irakurleak egoera hobeto uler dezan esan behar dugu ikerketa kualitatibo kritikoan ikertzaileak ez direla datuak hartzera mugatzen baizik eta partaideen ahotsak eta esperientziak taldera ekarriz, partaide guztiek elkarrekin pentsatzeko eta ikuspuntu berriak eraikitze baldintzak sortu nahi dituztela. Partaideak ez doaz hara besteek baino gehiago edo gutxiago dakielakoan, baizik eta besteekin batera pentsatuz eta jarrera zabal eta elkarrekikoan arituz errealitatea hobeto ulertzen delakoan eta horrela aldatzeko urratsak argiago ikusten direlakoan. Beste era batez esanda, pertsona guztiek hezkuntza eragile gisa elkar hartuta lan egiten dute, ideiak modu irekian (ez lehian) eztabaidatuz eta berreraikiz, komuna duten proiektua aitzinatzeko. Pertsonak, horrelakoetan, *parte hartzetik partaide izatera igarotzen dira*, hau da, parte sentitzen dira eta parte ere izan badira eta, horregatik, erantzukizunez jokutzen dute.

Nola irudikatzen dugu Hezkuntza Komunitate Dialogikoa?

Guretzat Hezkuntza Komunitate Dialogikoa (HKD) da bere hezkuntza praktika gidatzeko asmo jakin bat eta balio jakin batzuk partekatzen dituen komunitatea. Agian izenaren hiru kontzeptuen azterketak lagundu ahal digu esanahia hobeto ulertzen.

a) Zergatik komunitatea? Eskola edo ikastola batean egunero dauden pertsonak berez ez dute, gure ustez, komunitate bat osatzen. Mila pertsona toki berean egoteagatik ez dira komunitate bilakatzen; multzoa izan daitezke, areago, multzo harmonikoa osa dezakete, baina ez komunitatea. Horretarako funtsezkoa da talde kontzientzia edukitzea eta horren arabera jokatzeko, eta hori bakarrik lortzen da baldin eta *komunitate hori eraikitzen badugu*. Beraz, HKD eraiki beharreko zerbait da, eta aldi berean, etengabe eraiki eta berreraikitzen dena. Era

berean, ez dugu ahanzi behar komunitate kontzeptuaren erroa, luzea eta arazotsua dela. Kontuan izan, bizi garen jendartean balio nagusia ez dela komunitatea, baizik eta indibidualismoa eta isolamendua, eta ondorioz, batzutan ohartuta eta bestetan oharkabean, eredu indibidualista hori barne-barnean errotzen zaigu eta oztupoak aurkitzen ditugu sarri askotan komunitatea eraikitzerakoan.

b) Zergatik hezkuntza komunitatea? Argi dago eraiki behar omen dugun komunitateak zeregin nagusi bat duela: heztea. Eta hor agertzen zaigu beste korapilo garrantzitsu bat, zeren zer da heztea? Zer da hezkuntza? Galdera horretara heldu ziren eztabaida talde guztiak, eta zer esanik ez, heltzen gara gu, egunero lan honetan dihardugun guztiok. Freire eta pedagogia kritikoa dira, guri interesatu zaigun erantzun-bidea ematen dutenak. Zaila da definizio bat ematea, baina guretzat heztea ez da edukiak eta trebetasunak transmititzea edo irakastea, nahiz eta gure ikasleak ondo prestatuta egon daitezen nahi dugun, noski. Guretzat, hezkuntzaren ikusmira beste toki batean ardazu behar da, eta toki hori jendartea eta mundua da. Mundua nolakoa hezkuntza halakoa esango genuke, eta mundua nola dagoen ikusita, bertan egokitu gabe, mundua eraldatzeko konpromisoa hartzen dute HKD-ek. Zentzu horretan, merkatu neoliberalaren eskaerei makurtu beharrean, beste mundu bat posible dela uste dutenetakoak eta horren alde borrokatzen garenetakoak gara gu.

Labur esateko, errazkerian edo eskematismoetan jausteko arriskua dugula konturatuta ere, hezkuntza kultur- eta zientzia-eduki edo eduki tekniko eta akademikoak irakastea eta igortzea baino harago doala uste dugu. Izan ere, edukiak irakasteaz gain, Euskal Herrian bizi dugun kultur eta hizkuntza berdintasunik ezaren atzean dauden egoera injustuak eraldatzeko lan egin behar du hezkuntzak. Benetako zioen argitze-lana eta diskurtso estalgarrien aurkako ariketa tinkoa izan behar du hezkuntzak, ikasleek egoeraren esanahien kontzientzia izan dezaten. Ondorioz, hezkuntza ez da mugatzen edukien ikaskuntzara bakarrik: gertaera sozial, politiko, ekonomiko eta historikoen arrazoen azterketara ere zabaldu behar da. Modu honetan, pertsonak munduarekin duten harreman mota eta dominazio prozesuak ulertzeko aukera izango dute. Gure ustez, hortik eraiki daitezke herritartasun berriak, beste mundu berri baten eraikuntzan lagunduko dutenak.

d) Eta zergatik dialogikoa? Funtsean metodo dialogikoarekin lan egiten dugulako (Freire da hemen osteria ere gure iturri nagusia). Elkarrizketa ez dugu ulertzen hitz egitearen sinonimo gisa, bizitza arruntean orokortu den antzera, baizik eta “elkar-hizketa” hitzaren etimologiak ematen digun bidetik hasita komunikazioaren teoria osora zabalduz. “Elkar” hitzak badu esangura argia gure hizkuntzan, birena edo askorena baita elkarrena, eta horregatik bakarriketak, hizketak, berriketak edo elkarrizketak ez dute esangura bera. Freirek eta beste

egile batzuk azpimarratzen dute elkarrizketaren sakoneko esanahi hori, joan-etorriko komunikazioa bereiziz, berdintasunezkoa, horizontala. Baina horretaz gain, *elkarrizketa da subjektuek elkarrekin munduari eta errealitateari buruz ezagutza sortzeko topaketa*. Elkarrizketa, hizkuntza dela medio, elkarrekiko eta elkarren arteko ariketa da, zeinean bakoitzak esandakoaren balioa ez baita neurtzen bere botereagatik edo ospeagatik baizik eta erabili dituen argudio zehatzengatik. Elkarrizketak zerikusia du bestea, edozein delarik, ezagutzearekin; besteei jaramon egitearekin, entzutearekin, elkarrekiko gogoetan eta ekintzan mundua eraldatzearekin.

Hemen ere gauza jakinak esaten ari garela ematen du, agian ideia ezagunak dira guztiak. Baina *heziketan gure problemak ez omen daude diskurtsoan, praktiketan baizik*; esaten dugunaren eta egiten dugunaren arteko distantzia zabalean, zabalegian. Horregatik metodo dialogikoarekin lan egitean gure praktikak izango dira ikergai nagusia, egiten duguna aztertu eta egitearen arrazoiak azalerazi (zergatik eta zertarako egiten ditugun gauzak) eta azkenik benetan lortu nahi duguna egiteko laguntzen ala eragozten ote diguten praktikak elkarrekin argitu. Horregatik metodo honen erabileran funtsezko tresna *galdera* da.

Maila praktikoan nola egiten du lan Hezkuntza Komunitate Dialogikoak.

Laburki azaltzen saiatu garen ideia teorikoak, halere, ez dira nahikoak eskola barruko praktikak eta testuinguruak eraldatzeko, mundu berri bat eta ikastola berri bat erdiesten laguntzeko. Zergatik? Eskolan eta jendartean dagoen kultura nagusiaren balioetan eta praktiketan sozializaturik gaudelako eta konturatu gabe ere erreproduzitzen ditugulako. Adibide bat jarriko dugu. Goiko atalean esan dugu gure ikuspegitik ikastola edo eskola batean aritzen diren pertsona guztiak hezkuntza eragileak direla. Izan ere ikasleak heztearen ardura ikasleena euren, gurasoena, irakasleena, eskolako langileena eta zuzendaritza taldearena da gure aburuz. Guztiak dira hezkuntzaren eragile eta erantzule, edo diogun bezala ardurakideak dira hezkuntza prozesuan. Ideia honekin jende askok bat egingo lukeela uste dugu, ez mundu guztiak noski, baina jende askok bai. Kontua da gure praktikak aztertzeraz goazenean zer ikusten dugun. Eremu horretan esate baterako, ikusten dugu eragile horiek guztiek ez dutela inongo espazio edota jardunik hezkuntzaz elkarrekin hausnartzeko edo gogoetatzeko; areago, batzuk esango edo pentsatuko dute besteek ez dutela zertan hezkuntzaz iritzia eman behar ez direlako gai (profesionalak ez direlako, gazteegiak direlako, euren prestakuntzak hezkuntzarekin loturarik ez duelako), eta aurreiritzi hauek, tamalez, ikastetxearen barruan indarrean dagoen antolamenduaren muinean daude, praktikaren benetako motoreak eta eragileak dira, eta eragingarriagoak gainera diskurtso teoriko guztiak baino. Beraz, komunikazio edo elkarrizketarako espazioak falta dira, baina horrez gain gure aurreiritziek ere ez digute asko laguntzen. Eta auzia ez da inori errua botatzea, baizik eta aztertzea nola eta zergatik eraiki ditugun gutako bakoitzak horrelako aurreiritzi eta praktika anti-

dialogikoak, parte-hartzearen aurkakoak, beste pertsonen kontrakoak. Hor hezkuntzaren izaera sozial eta politikoarekin tupust egiten dugu, eta fase horretatik igaro behar dugu ez baita posible ezer eraldatzea ez badakizu nola eta zer dela-eta eraiki dugun.

HKDetan diskurtso aurrerazaleen/fede onekoen eta praktika atzerakoien artean dagoen harreman estuaz kezkatu gara, arazo bihurtu ditugu eta aldatzeko baldintzak sortzen saiatu gara. Horretarako gure gakoa *prestakuntza* izan da, zeren hezkuntza aldatzeko munduko erreferentzia diren Fullanek eta Hargreavesek diotenari segituz “ikasleek nola ikasten duten zuzen-zuzenean dago lotuta hezkuntza eragileek hobetzen ikastearekin eta hobetzen ikasteko moduarekin”. Prestakuntza ez da, gure adieran, aditu batek ez dakiten pertsoneri ezagutza berriak transmititzea baizik eta praktikak dauden egoeretatik abiatuta elkarrekin ikerketa egitea (metodo dialogikoaren bidez) eta eraldatzeko baldintzak sortzea eta instituzionalizatzea.

Maila praktikokoan horrelako printzipioekin lan egiten dugu HKDetan:

- Ikastolako pertsona guztiak gara hezkuntza eragile, beraz, denok dugu heztearen ardura eta konpromisoa.
- Hezteko eta hezkuntzaz mintzatzeko eta gogoetatzeko denak gara gai, denek dugulako ardura eta esperientzia hezkuntzako ekintzan (kolektibo/pertsona bakoitzak jokatzen duen roletik edo garatzen dituen eginkizunetatik). Beraz inor ez da bestea baino gehiago edo gutxiago; denak gara baliotsuak.
- Aurrekoarekin koherentzian gure lan egiteko moduetan entzute aktiboa, ahots guztiak bertaratzea eta horizontaltasunez jokatzea izango dira gure printzipio garrantzitsuak.
- Errealitateari buruzko (edo kezkatzen gaituen gai bati buruz) ezagutza sortzea ez da adituen ataza, baizik eta zuzenean gai horren eraginpean dauden pertsonena. Haiei dagozkie arazoaren inguruko gogoeta eta ekintza, beti ere prozesua bideratzen lagunduko dien pertsonekin batera.
- Elkarrizketa ardatza duen ikastetxe baten azken xedea kultur aldaketa da, zeinean eskola eta mundua eraldatzeko konpromisoa hartzen den.

Maila praktikokoan horrelako ekintzak sustatzen dira HKDen antolamenduan:

- Ikastolako urteko planean kezka sortzen duten eta ikergai gisa landu nahi diren gaiak aukeratzen dira. Batzutan ikastetxe barruko bizitzari dagozkio (adibidez Hezkuntza Proiektua edo Barne Araudiak zehaztea; gurasoen parte-hartzea bultzatzea; familia berriak ikastolako proiektuan txertatzeko edo bertaratzeko prozesuak); beste batzutan hezkuntza praktiken azterketa egitea da kontua, esate baterako irakasleen gela barruko praktikak edota zuzendaritza taldekideen praktikak arazo bihurtu eta aldatzea. Gure prozesua azaldu

dugun ordena berean gertatu da, hau da, hasieran ikergaiak “abstraktuagoak” ziren (diskurtsoarekin lotuagoak) gerora praktiken azterketara jaisteko.

- Ikastetxeko zuzendaritzak HKD bere gain hartzen du baita horren arabera jokatu ere (beraz, ez da ikastolako kide batzuk egiten duten zerbait baizik eta erakundetik bertatik ere sustengatuta dagoena).
- Ikastetxean badaude pertsona batzuk (normalean bi) prozesu dialogikoak bideratzeko ardura hartzen dutenak (bideratzaileak), eta unibertsitateko taldearekin diseinatu, garatu eta etengabe erkatzen dituzte prozesuak. Beraz, bideratzaileak eta kanpo eragileak elkarrekin lan egiten dute.
- Prozesu dialogiko hauek gertatzeko espazioak eta denborak aurreikusten dira, prestakuntzako prozesuak baitira. Beraz, prestakuntzako unitatea ikastola bera da, bertatik zehazten dira beharrak eta baliabideak eta erantzuteko ekintzak. Bideratzaileei oinarrizko baldintzak eskaini behar zaizkie lan hori egiteko (denbora aldetik), baina printzipioz ikastetxeko edozein pertsonak egin dezake lan hori. Gure kasuan zuzendaritza taldekideak, irakasleak eta langileak izan dira bideratzaileak.
- Bideratzaileak lan teknika desberdinak erabiltzen dituzte talde prozesuak aurrera eramateko, eta haien ikaskuntza praktikan bertan burutzen da kanpo eragileekin daramaten dinamikan. Beraz, ez zaie ematen aldeztatik aurretik prestakuntza teknikoak gero euren aplikatu dezaten, baizik eta egoera zehatzerako diseinua praktikan garatu ari den bitartean teorizatzen eta kontrastatzen da kanpo eragileekin. Halaber, estrategia hori bera erabiltzen dute ikastetxeko beste pertsona batzuk bideratzaile lanean engaiatzeko.
- Bideratzaileak erabiltzen dituzten tekniken artean: eztabaida taldeak suspertzeko dinamikak, kanpo oharak, berreraikuntzak eta bitakorak ditugu. Oso garrantzitsu deritzegu galderaren erabilera egokia menperatzeari eta idazteko ohiturak bereganatzeari.

Partaidetzako kulturaren bila: bide zailak mundu nahasian.

HKDen eraikuntzak, esan bezala, ikastetxeetan hezkuntza kultur berria ezartzea bilatzen du, hau da, ikastola jendarte, kultura eta lankidetzazko izariak agintzen duten eremua bilakatu. Apple-n esanetan eskola demokratikoen eraikuntza litzateke, demokraziaren kontzeptuaren sustraietara jotz. Prozesuan daudenentzat esperientzia honek ikastolak jaio zireneko zentzua eta konpromisoa berreraikitzeko balio izan du, jatorrizko identitatea egungo testuinguruan taxutzeko. Aurkikuntza horrek bizitasuna eta motibazio berriak eragin ditu, baita aurrera jarraitzeko indarra ere.

Hala ere ez dugu alboan utzi nahi bide hau hartzeak dituen zailtasunak eta oztopoak. Kultur aldaketek ez dute emaitza ikusgarriak, pausuz pausu egiten dira, eta epe ertainean hasten dira nabaritzen, beti ere lana tinko eginez gero. Egun hezkuntza sisteman dagoen giroak eta kulturak ez diete horrelako asmoei mesederik egiten. Hezkuntzaren merkantilizazioaren garai hauetan, non fabriketako kontrol kalitateak (neurgarriak eta unibertsalak) eskolei zorrotz aplikatu nahi zaizkien

(testuinguru bakoitzak dituen ezaugarri historikoen, sozio-ekonomikoen, linguistikoen eta kulturalen kaltetan) epe motzeko eraginkortasuna eta efizientzia nagusitzea bilatzen da, korporazio ekonomikoen interesei men eginez. Gure buruari galdetzen diogu ea ez ote garen emaitza bikainen eta errendimenduaren tiraniapean. Horrelakoekin bat eginez gero ez du zentzurik zinezko parte-hartzeaz hitz egiterik, itxurak egiteko eta jendea engainatzeko ez bada. Erabat piramidala eta injustua den gizartea bere horretan mantentzea bada kontua, merkatuaren “beharretara” –gizarte beharrez mozorrotuta hori bai- erantzutea baldin bada eskola sistemaren azken xedea, orduan eskola praktikak izaera berekoak izango dira (boterezkoak, bertikalak, diskriminatzaileak), zelofanezko paper koloretsuetan bilduta eta hizkuntza teknikoz eta neutroz itxuratuta etorriko diren arren. Ez zaio faltako, ez, merkatuaren kulturari marketing primerakorik ezta markarik markakoenen xarmarik, inozo denok amua irents dezagun.

Hemen deskribatu dugun esperientzia horren kontrako muturrean dago. Ez da formula magikoa eta ez dakigu noraino eramango ote gaituen. Argi dugun bakarra da zein bide ez dugun hartu nahi. Beste gainerakoa jorratzeke, asmatzeko, sortzeke dago. Ea bide horretan elkartzeko parada dugun.

Bibliografia

APPLE, M.W. Y BEANE, J.A. (Coord.) (1997). *Escuelas democráticas*. Madril: Morata.

ARANDIA, M.; FERNÁNDEZ, I.; RUIZ DE GAUNA, P.; MARAÑÓN, J.L.; GÓMEZ, J.V (2002). Euskal eskolaren muin eta mamiaren bila: ikerkuntza-prestakuntza prozesu bat. Soziologiako Koadenoak, 8. Lehendakaritza. Eusko Jaurlaritza.

ARANDIA, M.; FERNÁNDEZ, I: (2004). Hezkuntzako ikerkuntza partaidetzaren ikuspegitik: errealitatea pentsatuz eta eraldatuz. UEU. Bilbo.

BOLÍVAR, A.(1999). La educación no es un mercado. Crítica de la “gestión de calidad total”. In Aula de Innovación educativa, 83-84 zenbakia, 72

CARR, W. Y KEMMIS, S. (1988). Teoría crítica de la enseñanza: investigación-acción en la formación del profesorado. Barcelona: Martínez Roca.

FULLAN, M. & Hargreaves; A. ¿Hay algo por lo que merezca la pena luchar en la escuela. MCEP. Sevilla.

FREIRE, P. (1973). ¿Extensión o comunicación? La concientización en el medio rural. Madrid: Siglo XXI.

FREIRE, P. (1993). Pedagogía de la esperanza. Madrid: Siglo XXI.

FREIRE, P. (1994). Cartas a quien pretende enseñar. Madrid: Siglo XXI.

HIK HASI (2003). Hezkuntza komunitate dialogikoak. Partaidetasuna eta eraldakuntza oinarri dituen ametsa. In *Hik Hasi*, 76. zbkia. Donostia.

<http://www.forummundialdeeducacao.com.br>